

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa. Onestea Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak**

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango zituen dirulaguntzak arautuko zituzten oinarri orokorrak onetsi ziren.

2019-2023 agintaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Sailak honako eginkizun eta eskumen arlo hauek ditu: Agiritegi eta Liburutegiak; Museoak; Zaharberrikuntza; Kultura Etxea; Hezkuntza Sustapena eta Kultura Zabalkundea; Argitalpenak; Historia, Arte eta Arkitektura Ondarea; Kirolak; Gazteria, eta ordenamendu juridikoak ezartzen dituen gainontzekoak. Sail horretako eginkizun eta eskumen esparruetatik kendu dira euskara politikei dagozkienak.

Bestalde, behin indarrean sartu direnetik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak erregistro elektronikoari buruz xedatutakoak, beharrezkoa da lege araubidean sartzea aukera dagoela eskaera modu elektronikoan izapidetzeko eta baliabide elektronikoak erabiltzeko dirulaguntzak justifikatzean.

Horregatik, beharrezkoa da onestea foru dekretu berri bat, zeinaren bidez arautuko baitira Arabako Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak; nolana ere, araubide espezifikoak ere egon daitezke.

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 16. artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio Arabako Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesteko eskumena.

Xedapen orokor hau lantzeko modua Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan jasoriko arauketa onaren printzipioei egokitzen zaio. Foru Dekretu horren bidez, onespena ematen zaie xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei.

Halaber, oinarri arautzaile orokorrak bat datoz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa betetzei eta sexu arrazoiengatik edozein motatako diskriminazio berriaz debekatzei dagokienez.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak, zeinak dekretu honen eranskinean ageri diren, nahiz eta, salbuespenez, araubide espezifikoak ere izan daitezkeela aurreikusten den.

Bigarrena. Indargabetzea Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretua, zeinak Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango zituen dirulaguntzak arautuko zituzten oinarri orokorrak onetsi baitzituen.

Hirugarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Laugarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol diputatua*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Kultura zuzendaria*

**MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE**

*Kirol zuzendaria*

**PABLO DE ORAÁ OLEAGA**

## OINARRIAK

### **Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak**

#### **1. Helburua eta aplikazio eremua**

Dekretu honek ezartzen ditu Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez eta aurrekontuko kredituen kontura sailaren eskumenen esparruan dauden jardueretarako ematen dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Honako dirulaguntza lerro hauei aplikatuko zaizkie:

- Museo elkarreentzako dirulaguntzak.
- Musika hezkuntza udalerrietan.
- Arabako udal eta kuadrillen kultur ekimenak.
- Elkarreentzako kultura ekimenak.
- Ondasun historiko eta artistikoak kontserbatzea eta zaharberritzea.
- Babes berezia, tartekoa eta oinarritzakoa duten eraikinak kontserbatzea eta zaharberritzea.
- Ermitak kontserbatzea eta zaharberritzea.
- Elementu txikiak kontserbatzea eta zaharberritzea.
- Kirola toki erakundeetan.
- Eskola kirola.
- Jolas kirola, irabazteko xederik gabeko erakundeetan.
- Klubentzako laguntzak.
- Ezinduen elkarreentzako laguntza.
- San Prudentzio eguneko jardueretarako laguntza.

- Kirol federazioentzako laguntzak.
- Emakumeen kirolerako laguntzak.
- Kirol klub eta federazioen hizkuntza normalizaziorako planetarako laguntzak.
- Arabako kirol federazioentzako dirulaguntzak, material ez-suntsikorra eskura dezaten.
- Arabako kirol federazioentzako laguntzak, gazteen eta kadeteen joan-etorrietarako.
- Arte eszenikoen eta musikalen eta sorkuntza artistikoaren alorreko prestakuntzarako laguntzak.

Ez zaizkie honako hauei aplikatuko:

- a) Kultura eta Kirol Sailak emandako sariei.
- b) Lehiaketa bidez ematen diren eta oinarri arautzaile berezien ebazpenetan jasotzen diren dirulaguntzei.

Deialdiak honako hauek jasoko ditu:

a. Hala dagokionean, oinarri arautzaileak finkatzen dituen xedapena eta zein ALHAOn argitaratu den, salbu eta, haien berariazko izaera kontuan hartuta, deialdian bertan jasotzen direnean.

b. Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta eskura diren kredituen barruan zer zenbateko egiten duten guztira kreditu baliagarrien barruan emango diren dirulaguntzek, edo, halakorik ez bada, aurreikusitako dirulaguntza zenbatekoa.

c. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Dirulaguntzak lehia araubidean emango direla adierazi behar da.

e. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.

f. Zer organok duten prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena.

g. Eskaerak aurkezteko epealdia.

h. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia.

i. Eskaerari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.

j. Behar den kasuetan, eskaerak zuzentzeko aukera dagoela, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatzen denaren arabera eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak 25. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

k. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen duen zehaztu behar da; amaitzen ez badu, adierazi behar da zer organoren aurrean aurkeztu ahal den gora jotzeko errekurtsioa.

l. Eskaerak baloratzeko irizpideak. Irizpide horiek bermatu beharko dituzte objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publikitatea eta bereizkeriarik eza laguntzak ematerakoan, eta horien haztapenean kontuan edukiko da egin nahi den jarduera dirulaguntzaren helburua lortzeko egokia denetz, honako alderdi hauek kontuan edukiz: aurkeztutako proiektuaren edo egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak edo, oro har, deialdian ezarritako edozein puntu, dirulaguntzaren xederako egokitzat jotzen dena. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, beharrezkoan izanez gero, esleipen irizpideen artean sartu beharko da diruz lagundutako proiektuan edo jardueran genero ikuspegia integratzea eta erakunde eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiketan eta jardueretan egindako ibilbidea.

m. Nola jakinarazi edo argitaratuko den deialdia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

## 2. Printzipio orokorrak

Ematen diren dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Kultura eta Kirol Sailaren baliabide publikoak efizientziaz esleitzea eta erabiltzea.

## 3. Pertsona edo erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak

Onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden pertsona fisikoak zein juridikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta betetzen badituzte Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan ezarritako baldintzak.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute eskaera egiten den egunean Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 11. eta 13. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak 10. eta 12. artikuluetan ezartzen dituzten baldintzak ez ezik, honako hauek ere betetzen dituzten pertsonak eta erakundeak:

- Pertsona juridikoak izatekotan, legearen arabera eratuta egon beharko dira.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

Pertsona eta erakunde hauek ezin daitezke izan dirulaguntzen onuradun:

– Laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik sortutako betebeharrak guztiak bete ez dituztenak.

– Arabako Foru Aldundiaren edozein sailek bultzatutako beste programa batzuetan jasota dauden edo beste edozein sailen eskumenekoak diren xedeak dituztenak.

– Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan izendun dirulaguntzak dauzkatenak, horren helburua dirulaguntzaren xedearekin bat baldin badator, bai eta horiekin loturikoak ere.

– Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau-hausteengatik zigortu dituztenak, bai eta sexu arrazoiengatik diskriminatzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso dutenak, zehapenean ezarritako aldia, hala xedatzen baitute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Egiatzko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak.

Dirulaguntza eskuratzeko behar diren berariazko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua zehaztuko ditu deialdiak.

Dirulaguntzaren onuradun diren pertsonak eta erakundeak beren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute erakunde eskudunek puntu horiek egiaztatuz emandako ziurtagiriak aurkeztuz, salbu eta 58/2004 Foru Dekretuan jasotakoarekin bat etorri hori egiaztatetik salbuetsita badaude. Horrez gain, ezin izango dituzte Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2. artikuluan jasotzen dituen debekuak urratu. Zerga betebeharre dagokienez, beren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten onuradunentzat nahikoa izango da egoera horretan daudela baieztatzea, eta Foru Aldundiaren ardura izango da ziurtagiria ematea, Foru Ogasunaren bitartez.

## 4. Izapidetze aurreratua eta urte anitzeko dirulaguntzak

1. Deialdia onartu ahal izango da hura ebatzi behar den aurrekontu ekitaldia hasi baino lehenago, baldin eta laguntza ematea onartzen den urte berean gauzatzen bada gastua, eta honako inguruabar hauetakoren bat betetzen bada:

a) Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan normalean kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematearen ondoriozko gastuaren aurrekontua estaltzeko, edo

b) Kreditu egokia eta nahikoa egotea hurrengo ekitaldiko aurrekontuen proiektuan, zeinetan hartuko baita gastu konpromisoa, dirulaguntza ematea onesten duen ebazpenaren ondorioz.

Deialdian ageri den gehieneko zenbateko osoa, horrelako kasuetan, gutxi gorabeherakoa izango da; beraz, deialdian berariaz jaso beharko da dirulaguntzak emateko baldintza izango dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten den unean. Azkenik onetsitako aurrekontu kreditua hasieran balioetsitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak deialdian aplikatu ala ez erabaki ahalko du, ebazpenaren aurretik gastu espedientea izapidetu eta gero, beste deialdi bat onetsi behar izan gabe.

2. Era berean, dirulaguntzen deialdia baimendu ahalko da, baldin eta laguntzak emateko ebazpenari dagokion ekitaldiaren ondokoetan egotz daitekeen gastua badu. Kasu horretan, deialdian emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, guztira, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.

### **5. Eskabideak nola aurkeztu eta horretarako epea**

1. Deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira eskaerak. Aurkezteko modu hauek izan daitezke:

– Eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– Bide elektronikoak erabilia, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan, deialdian horrela aurreikusten bada.

Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

2. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiagokoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidali behar zaizkio, argitaratzen den ereduari jarraikiz.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Kultura eta Kirol Sailak pertsona eta erakunde interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

3. Jakinarazpenetarako ematen den helbidea adierazi beharko da.

4. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritakoa espresuki eta formaz onartzen dela.

### **6. Organo eskudunak eta ebazpena dirulaguntza emateko prozeduran**

1. Deialdian adierazten den Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko unitate organikoak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

2. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Balorazio batzorde horren lehendakaria Kultura zuzendaria edo Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dituzte mahaikide: dirulaguntza kudeatzeko ardura duen unitate organikoaren burua, eta Kultura Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari edo Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkari izango da, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe, Kulturako eta Kiroleko Idazkaritza teknikoaren burua.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Balorazio batzordeak, aurkeztutako eskabideak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, txosten bat emango du, ebaluazioaren emaitza zehaztuz eta eskabideen artean hurrenkera bat ezarriz emaitzaren arabera.

Organo izapidegileak, espedientea eta balorazio batzordearen txostena ikusirik, behin behineko ebazpen proposamena egingo du, behar den bezala arrazoitua.

Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta pertsona edo erakunde interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen; horrela gertatuz gero, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

3. Organo eskumendunak bidezkoa den ebazpena emango du, organo izapidegileak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde edo pertsona interesdunek eskabidea ezetsizat jo dela ulertu beharko dute.

4. Dirulaguntza jasoko duten eskaerez eta gainerako eskaera guztien esanbidezko ezestiaz gainera, eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak; hau da, oinarri arautzaileek onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdiak jasotako kredituaren gehienezko kopurua gainditzeagatik onartu ez diren eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak, deialdiak jasotako balorazio irizpideen arabera eskaera bakoitzari zenbat puntu eman zaion adierazita.

Kasu horretan, erakunde edo pertsona onuradun batek dirulaguntzari uko egiten badiu, dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo eskatzaileari ematea erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, baldin eta onuradunetako batek uko egiteagatik nahikoa kreditu askatu bada ezetsitako eskaera bati, gutxienez, aurre egiteko.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie erakunde edo pertsona eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean.

7. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorri.

### **7. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak**

1. Deialdietan, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa ezarriko da, dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, bai eta guztizko gehieneko kopurua eta aurrekontu partida ere. Deialdiko laguntza lerroren batean soberakinak sortuz gero, aukeran izango da gainerako laguntza lerroetako zenbatekoa gehitzea ekitaldi berean.

2. Ez badago modurik kopuruak zehazteko, deialdiak ezarriko du zein irizpide objektiboren arabera zehaztu, eta, hala badagokio, irizpideak nola haztatu ere ezarriko du dirulaguntzaren xedea kontuan izanda. Besteak beste, aurrekonturik dagoen kontuan hartu beharko da.

3. Eskaeren zenbatekoaren bolumena dirulaguntzarako gorde den gehienezko zenbatekoa baino nabarmen handiagoa bada, deialdiak pertsona edo erakunde onuradunen artean hainbanatzeko aukera emango du, salbuespenez eta ezarritako betekizunetan gorabeherarik eragiten ez bada, onuradunek eskatutakoaren eta dirulaguntzarako gehienezko kopuruaren arteko aldearen portzentajea.

4. Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera baloratuta gero 150,00 eurotara edo, hala dagokionean, deialdiaren oinarrietan xedatutako zenbatekora heltzen ez diren eskaerek.

### **8. Dirulaguntza dagokien gastuak eta bateragarritasuna**

1. Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko egin badira, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak ezarriko dira deialdi bakoitzean.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epearen barruan egiten direnak.

2. Ondoko kasuak ezin izango dira inola ere diruz lagundu:

- a) Bankuko kontuen zor interesak.
- b) Interesak, errekareruak eta administrazio eta zigor zehapenak.
- c) Auzi prozeduretako gastuak.

Zergak dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira erakunde edo pertsona onuradunak ordaintzen baditu.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira inola ere dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat hartuko, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

3. Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileek dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek egindako zeharkako gastuen ehuneko jakin bat ezarri ahal dute eta beraz diruz lagundu daitekeela ulertuko da, justifikatu behar izanik gabe, betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari badagozkie.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, pertsona edo erakunde onuradunaren jardueraren kostua baino gehiago izan, beste laguntza batzuekin zein administrazio publiko batzuek edo nazio zein nazioarteko erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera.

5. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako kopuruak, erakunde edo pertsona onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu eta haren ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori egin, eman edo hornitzeko, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada. Hiru eskaintzak frogagirikin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskabidean aurkeztu beharko dira.

Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera esanbidez arrazoitu beharko da memoria batean.

## 9. Ordainketak

Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak aldez aurretik justifikatu beharko du gauzatu duela dirulaguntza emateko arrazoi izan zen jarduera, proiektua edo xedea edo jokatu duela hura emateko eskatzen zen jokabidearekin, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako baldintzen arabera.

Dirulaguntza arautzen duen araudian, aldez aurreko eta konturako ordainketak egiteko aukera jaso ahal izango da, foru araudian ezarritakoaren arabera.

Deialdiek konturako ordainketak edo aurreordainketak egiteko aukera ematen badute, haien baldintzak eta mugak ezarriko dira, bai eta dagokion berme araubidea ere.

Ordainketa ezin izango da egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik ez baditu, edo itzulketagariko zorra ordaindu ez duen badu.

## 10. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak, emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Dirulaguntza onartu eta gero, hura emateko zio izan ziren egitatezko inguruabarrak aldatzen badira, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, aldatu egin dezake dirulaguntza, dagokion foru aginduaren bidez.

## 11. Justifikazioa

1. Dirulaguntzen onuradunek, deialdi bakoitzean ezarritako epean, instrukzio organoaren aurrean justifikatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza esleitzeko ekitaldian xedaturiko helburuak bete dituztela.

2. Oro har, pertsona edo erakunde onuradunak justifikazioa egiteko era gastuen frogagiriak aurkezten diren justifikazio kontua izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen arautegiko 72. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Arautegi hori onetsi zuen Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia (hemendik aurrera Dirulaguntzen Arautegi Orokorra) onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

a) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteagatik izandako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, hau da, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri bezala hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoaren balio bereko zenbatekoaren arabera, dagozkien fakturak eta merkataritza trafiko juridikoan frogatutako balio berdina edo administrazio eraginkortasuna duten gainontzeko agiriak aurkeztuz, jatorrizkoak nahiz fotokopia konpultsatutako direla, azken kasu horretan horrela ezarri baldin bada deialdi bakoitzaren oinarrietan. Bestalde, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu direla egiaztatu beharko da.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, berorren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Era berean, PEFZari (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuak justifikatzeko.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:



– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuradun pertsona edo erakundea. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko erosketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza zentro eta autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar). edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigilua jarrita, adieraziz ordainduta daudela.

Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketen zenbatekoa, baldin eta ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaloa atzerriko motetan.

Aurreko lerroaldean adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Deialdi bakoitzaren oinarrietan horrela ezarrita baldin badago, aurkeztutako jatorrizko frogagiriak zigilu batez markatuko dira, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoan; zigiluan agertuko da zein dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta frogagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati bati egozten zaion. Azken kasu horretan, gainera, dirulaguntzak eragindako zenbateko zehatza adierazi beharko da.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikiaren proportzioan.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

c) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko gauzatutako berariazko jarduera edo esku hartzeak, halakorik egin bada. Diruz lagundutako jardueran pertsonen parte hartzerik izan bada, memorian emandako informazioan sexuaren aldagaia sartu beharko da nahitaez, alegia, datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira, ikusteko zein alde izan den emakumeen parte hartzearen eta gizonezkoenaren artean, eta ahal den neurrian, datu horien azterketa edo interpretazioa ere egingo da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua xedatzen dutenaren arabera.

d) Diruz lagundutako jardueraren dokumentazio grafikoa, fotografikoa edo ikus-entzunezkoa (programak, iragarki kartelak, liburuxkak, argazkiak, bideoak...), halakorik bada. Dokumentazio horretan erabilitako hizkera eta irudiak ezingo dira sexistak izan eta berdintasunezkoak izango dira eta, gainera, EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dira. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol sailaren irudi korporatiboa era egokian erabili beharko da.

e) Dirulaguntzen Lege Orokorren 31.3. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

f) Zerrendan sartutako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala badagokio, a) atalean aipatutakoari jarraikiz, salbu eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan oroharreko konpentsazioa aurreikusi bada, justifikatzeko beharrianik gabe.

g) Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

3. 60.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, justifikazioa justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztuta egiteko ezarri ahalko du deialdiak, Dirulaguntzen Arautegi Orokorren 75. artikuluan araututako eran.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1) Memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla eta adieraziz egindako ekintzak eta lortutako emaitzak.

2) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan identifikatu egin behar dira hartzekodun pertsona fisikoa edo juridikoa, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da zein kopurutatik gora aurkeztu beharko dira, banan-banaka edo gastu multzo bererako bateraturik, fakturak edo balio bereko agiriak, jatorrizkoak nahiz fotokopia konpultsatuak direla, eta horien ordainketaren froga-agiriak.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Dirulaguntza izapidetzen duen organoak, deialdietan xedatzen diren laginketa tekniken bitartez, egoki deritzen frogagiriak egiaztatuko ditu, dirulaguntzaren erabilera egokiari buruzko arrazoizko frogak lortzeko. Horretarako, aukeratutako gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

4. Diruz lagundu daitekeen jardueraren xedea unitate fisikoen edo beste parametro batzuen arabera neur daitezkeen jarduerak egiaztatzea bada, moduluka justifikatu ahal izango dira gastuak, salbuespenez, dirulaguntza eman izanaren arrazoiak modu frogagarrian egiaztatuta, eta hala badagokio, dirulaguntzaren justifikazioa dirulaguntzaren xedeari aplikatuko zaio.

Dirulaguntzaren justifikazioa jarduketa memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztuz egingo da. Horien edukia, Dirulaguntzen Arautegiko Orokorren 78.2 artikuluan aurreikusten dena izango da.

5. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoen erabilera onartuko da justifikatzeko bide bezala.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira kofiantzako zerbitzu elektronikoen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

6. Baldin eta dirulaguntza justifikatzeko agiriak elektronikoki aurkeztu badira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko erregistro elektronikoa edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1. artikuluan aipatzen den beste edozein erregistroan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, jatorrizko ziurtagirien gordailuari buruz, eta adierazpen horretan adierazi beharko da emandako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agiriak (gastuen eta ordainketen frogagiriak) bat datozela erabat jatorrizkoekin, zeinak erakundearen legeko egoitzan gordailuturik egongo diren. Adierazpena erakundearen legeko arduradunak izenpetu beharko du.

Dirulaguntza ematen duen organoak, deialdietan xedatzen diren laginketa tekniken bitartez, egoki deritzen frogagiriak egiaztatuko ditu; horretarako, aukeratutako gastu eta ordainketa frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

7. Adierazitako epea igaro eta aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

### **12. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Edozein administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatutatik, nazionalak nahiz nazioarte-koak direla, beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta horien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino handiagoa edo ez badakar diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko eskatutako finantzaketaren murrizketarik.

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

### **13. Kultura eta Kirol Sailaren babesa**

Dirulaguntzen onuradunak beharturik daude Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren babesa dutela argi eta garbi azaltzera programan, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako egitaraua edo jarduera dela-eta argitara ematen dituzten gainontzeko material grafiko, idatzi nahiz entzunezkoetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Aipatutako legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoa.

### **14. Dirulaguntza itzultzea**

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauko I. kapituluko II. tituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

### **15. Egiaztatzea**

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak dirulaguntza deialdiak garatzeko bidezkoztat jotzen diren ebazpenak hartuko ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta onuradunek aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko bide ematen duten ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

Horretarako, kolektibo onuradunak beharturik daude egindako jarduerekin zerikusia duten eta Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dituen datu eta dokumentu guztiak aurkeztera. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten gainerako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

### **16. Erantzukizunak**

Onuradunek beren gain hartzen dute programa edo jarduera egitearen erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

**17. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, Aldundi honetako Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

**18. Errekurtsoak**

Oinarri hauek eta hauen ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

**19. Aplikatu daitezkeen araudia**

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, indarrean dagoen aurrekontua gauzatzeko foru araua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Arteko Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

**20. Indarrean jartzea**

Oinarri hauek, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.